



AKORDIO POLITIKOA

ERORIEN MONUMENTUA IZENDATUTAKOA
ERALDATZEKO ETA MARAVILLAS LAMBERTO
INTERPRETAZIO ZENTROA SORTZEKO

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an

ERORIEN MONUMENTUA IZENDATUTAKOA ERALDATZEKO ETA MARAVILLAS LAMBERTO INTERPRETAZIO ZENTROA SORTZEKO AKORDIO POLITIKOA

1.- **Erorien Monumentua 1942an eraiki zen, 1936ko altxamendu kolpista eta ondorengo erregimen totalitario frankista Iruñeko erdigunean ospatzeko eta goraiatzeko; eta horren aurrean, indar sinatzaileok uste dugu irmo, argi eta adierazkor jokatu behar dela,** hiri-espazio hori memoria demokratikoari eta faxismoaren salaketari eskainitako gune bihurtuz, zeinak etapa historiko horren irakurketa kritikoa eskainiko duen eta belaunaldi berriei ideologia faxistaren arriskua eta balio demokratikoak eta giza eskubideak etengabe defendatzeko beharra helaraziko dien. Hori guztia, gainera, Nafarroako eta Iruñeko gizarteak hala eskatzen digulakoan.

2.- **Nafarroa eta Iruñea mailako akordio politikoek, gizartearen gehiengoaren babesa ordezkatzeko dutenek, esku-hartzearen esparrua ezartzen dute.** Beraz, esku-hartzeak, funtsean, memoria demokratikoari lotuta egon behar du; huts egin duen hiri-espazio hori berreskuratzeko hirigintza-alternatiba bat eskaini behar du; eta herritarren partaidetza-prozesu bat izan behar du.

3.- Eroriei dagokionez, aurkezten dugun akordioaren aurrekari dira une honetara ekarri gaituzten bost mugarrak: 1) 2016an Iruñeko Udalaren Osoko Bilkuraren erabakiz Askatasunaren Plaza izena hartu zuen monumentuaren aurreko plazaren izen aldaketa. 2) Monumentu horren mausoleo izaeraren galtzea, Mola eta Sanjurjo kolpistak lurpetik atera ondoren. 3) “Askatasunaren alde eta faxismoaren aurka” egindako manifestazioa, espektro zabaleko milaka pertsona bildu zituen, gorpuak hobitik ateratzean jasandako erasoak salatze eta gizarteak jarduera horri babesa emateko. 4) Nafarroako Gobernuak 2016ko azaroan onartu zuen sinbolo frankisten behin-behineko errolda eta sinbologia hori kentzeko gomendioak, zeinetan Eroritako monumentua azaltzen den. 5) Balizko esku-hartzeari buruz hausnartzeko 2019an Udalak sustatutako Ideien Nazioarteko Lehiaketak irekitako bidea, Iruñeko alkatetzara itzultzean UPNk eten eta amaitu ez dena.

4.- Beraz, frankismoa izan zena eta haren motibazio faxista salatzeko eta memoria demokratiko kritikoaren ikuspegitik, demokraziaren, aniztasunaren eta giza eskubideen balioak bultzatzeko **aukera historiko** baten aurrean gaude. Eta, gainera, Europan eta munduan ideia totalitarioak eta neofaxistak berpizten ari diren testuinguru batean, Iruñea berdintasunaren, justizia sozialaren eta askatasunaren balio demokratikoak bere egiten dituen hiria dela aldarrikatuz.

5.- **Frankismoak gure lurraldean eragindako milaka biktimekiko gure konpromisoa adierazten dugu, eta ezartzen dugu justizia, egia, erreparazioa eta ez errepikatzea direla akordio honek eta ondorengo garapenak horiei guztiei dagokienez mantentzen duen printzipio gidaria.** Era berean, nabarmendu egiten dugu elkarte memorialistek egindako lan goraipagarria, isiltasuna apurtzeko, egia ezagutzeko eta senideak berreskuratzeko lanari ekin baitzioten, eta hori gabe ezinezkoa izango baitzen honaino iristea. Guztiarekin ere, ulertzen dugu Nafarroako gizarte osoa izan zela azken batean diktadura frankistaren biktima.

6.- **Eraikinaren eraldaketa fisiko eta sinboliko bat proposatzen dugu, uztartuko dituen sinbologia frankista inplikatzan duten elementu arkitektonikoak eraistea eta faxismoaren salaketarako eta memoria demokratikorako interpretazio-zentro bat sortzea,** monumentu izaera galduko lukeen leku horretan.

7.- **Faxismoa salatzeko eta memoria demokratikorako interpretazio-zentro horri “Maravillas Lamberto” deituko zaio, basakeria frankistaren ikonoa.** Memoria demokratikoaren eremuari lotuta egongo da, eta gizarteari eta, bereziki, belaunaldi berriei azalduko dizkie estatu-kolpea bultzatu zuten arrazoiak eta ideiak, heriotzak, erbestea, milaka pertsonaren errepresioa eta haien eskubideak urratzea ekarri zuten giza eskubideen urraketak.

Gainera, demokraziarekin, aniztasunarekin eta justizia sozialarekin talka egiten duten heinean faxismo modu berrien arriskuez egungo gizarteari gogoeta egitea eta kritikoki ohartaraztea izango du helburu, bizikidetzari eta giza eskubideekiko errespetuari balioa emanez.

Zentroa elkarlanean arituko da Nafarroako Memoriaren Institutuaren Oroibidea Dokumentazio Zentro eta Artxibo Digitalarekin eta Nafarroako Gobernuaren Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Memoria duten Eskolak programarekin.

8.- **Sinbologia frankistari eta eraikinaren arkitekturari dagokienez**, adosten dugu Mola eta Sanjurjo kolpistak lurperatuta egon ziren kriptak desagertzea eta eraistea; inauguraziorako jarri ziren eta Francoren inskripzioak dituzten marmolak kentzea, gaur egun ezkutatuta eta eraikinaren barruan daudenak; eta eraikinaren kanpoko arkuteriak eraistea.

Ikusgarritasuna eman eta menderatze sinbolikorako bokazioz hiri honetako hiri-paisaia marraztu duen elementu arkitektonikoa den aldetik, kanpoko kupularen gaineko esku-hartze espezifiko garrantzitsua adosten dugu, ezkutatu eta skylinea aldatuko duena. Modu honetara, eraikinaren beraren eraldaketa bistaratu, sekularizatu eta eraikinaren balio sozial berriarekin bat datorren paisaia hiritar eta sinboliko berri bat sortu beharko du.

Eraldaketa horrek, nolahi ere, Ramón Soltz-en pinturak dituen kupularen barne-egiturari eutsiko dio, interpretazio-zentroan bertan horien irakurketa kritikoa egin ahal izateko. XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadan Europa suntsitu zuen faxismoaren ikuspegi suntsitzaile, supremazista, belizista eta askatasunaren aurkakoaren erakusle, pinturak azterketa kritikoa egiteko erabiliko dira, helburu hezitzaile, pedagogiko edota akademikoetara mugatutako ikustaldien bidez, eta publiko orokorrarentzat ezkutuan geratuko dira.

Azkenik, aurrealde eta atzealdean aldaketak egiteko aukera adosten dugu, zentro berriaren esanahiari eta Askatasunaren Plazaren eta inguruaren hirigintza eraberritzeari lotuta.

9.- Adosten dugu **1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legean lege-aldaketa aurkeztea**, eraikinaren eraldaketari segurtasun juridikoa emateko. Halaber, **konpromisoa hartzen dugu Nafarroako Gobernuan eta**

Iruñeko Udalean beharrezkoak diren araudi aldaketak sustatzeko, esku-hartzeari babesa emateko eta itzulezina egiteko.

10.- **Talde politiko sinatzaileok adosten dugu, Iruñeko Udalaren gehiengoaren adostasunaren bidez, ahalik eta lasterren proiektuen lehiaketa bat bultzatuko dugula**, akordio honetan ezarritakoa jasoko duten oinarri zehatzekin. Oinarri horiek akordio honen baldintzak islatuko dituzte eta diziplina anitzeko epaimahai bat izendatuko dute, gaitasun profesional gorenekoa, zeinetan Udaleko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak ere parte hartuko duten. Era berean, **prozesu parte-hartzaile-informatibo-pedagogiko bat egiteko konpromisoa hartzen dugu**, zeinak Iruñean egingo den herri kontsulta bat jasoko duen.

Akordio honetan adostutako eraikinaren eraldaketa gauzatzea eta etorkizuneko Maravillas Lamberto Zentroa kudeatzea Iruñeko Udalaren ardura izango da; hala ere, Nafarroako Gobernuaren memoria-politika publikoak direla-eta, laster Iruñeko Marques de Rozalejo jauregian izango dutenak egoitza, bi erakundeen arteko lantalde bat eta lankidetzak hitzarmenak sustatuko dira, proiektu hori bultzatzeko.

Interpretazio-zentroaren programazioari ahalik eta kalitate hobereana emateko eta helburu hezitzaile, pedagogiko edota akademikoak zabaltzeko, halaber, indar sinatzaileok lankidetzak sustatuko dugu NUPeko Historia Katedrarekin eta Dokumentazio Funtzarekin eta bestelako unibertsitateekin.

Iruñean, 2024ko azaroaren 20an.



ehbildu

